



MIRENTXO'REN BURESTUNA



ERE bafuar zerabilen guda zitalak gogoan ezafi zion ituna arpegian ezagun zuala, eldu zan Jone etxera. Kendu zuan ia begietaraño saftua zekafen *glase'zko* txapela, eta gelaren albo baten zegon lorontzi eta argazkiz apaindutako kerexazko oltza-mai-baten gañian ipiñirik, gelditu zan oarkabe. onen gaikaldean ormari erantzitako antzikuf batean bere buruari begira. Oarkabe baita, oiturak arazita bezela, jaso zitun txapelak afotu zizkan tximak; afotu zitun baita lenaz gañera, belafiak estalduaz matral-gañera zetofzkion ile-matasa izkurtuak, eta asnas luze bat emanaz, esan zuan:

—¡Au bizikera!

—¿Txaña?—galdetu zion Elixabete bere aizpak, len areri atea ireteko utzi beaf izan zuan jostekua befiz eskuetan aftuz, gelak zeukan leyo bakafaren ondoan eseritzen zan bitaftean.

—Gogaikafia bai beintzat—erantzun zuan Jone'k olde-txafdun, gela txiroari eta urteak eta zerenak maistu zitun efedixai destañez begituaz.

—Emakumea..... etzaitut uleftzen—adi-adi arpegira begituaz esan zion Elixabete'k.—Len jostea zan zuretzat gogaikafi. Eta lan ori utzita, daukazu zeregiña aftu zendun, au askozaz eratsuago eta geyago irabaztekoa zala-ta. Len ain pozik ziñan; orain.....

—Orain gogaitu naz lan onetzaz ere, Elixabete.

—¿Zer nai dezu, ba? Lanik egin-gabe bizitzea? Ori guretzat eziña da.

Eta bereakin irteteko egokimena eskura datofkionaren pozaz, Jone'k Elixabete'ren itzai eldu zien.

—¿Eziña? Ez derizkiot. Neretzat ez da eziña.

—¿Ezetz, Jone'k? Gure lanak dakafkiguna beste aberastasunik ez degu.....

—Gu bezin txiroak bai-dira gu bezela neketsu bizi-beafik ez dutenak.

—Nola ez, Jone! Lana egiñaz, Jainkoa'ren bilduf deunean, zintzoak izanaz bizi izan ziran gure gurasuak; eta onela izaten irakatsi ziguten. ¿Zergatik gogaitu beaf gaitu, Jainkoa'ri eskeñiaz bere eskañ deunak gureganatzen ditun lanerako onoiñen edefak? Lan egitea gogaikafi zaizu, Jone?

Baña bere aizpak ain zuzen egin zizkan galdeaz arauketurik, zer erantzun etzekiela. Jone'k bere lo-gelara alde-egin zuan, iantziz aldatzeko.

Etzan alpefkeria bere bafuan zerabilen gudaren ziyoa; gogoaz ezpayan ipiñi zion maitasun galdua ontzat aftu al-izateko, lan-egiñaz bizi-beafak duan nekea aitzaki aftu nai ba-zuan ere. Orengatik, bere aizpa zintzoak alpeftzat aftu zuala ikusteak arauketu zuan, eta bere gogaitzaren egizko ziyua azaldu nai ezta, lengo itzak ontzera apal atera zan ostera lo-gelatik, etxerako zeukan soñeko maistu bat lotuaz.

—¡Ai ene Elixabete! Ikusiko ba'ninduzuke antzeztoki gixako artan, bein soñeko bat, bein beste bat ditudala, bata baño bestea apañagoak, egundoko egokerak eta ibilkerak antzeztuaz, neuri begira izaten ditudan andera aundiki-gogaikafi ayei begietatik jantzi ayek saftu-eziñik, ia erosten dituzten; ainbeste aldiz jantzi-erazteko nekea aftuaz; eta neure nairik ez ba'neu bezela, nagusiaren eta bere erostale oyen nai aldakof-erora nere gogo guzia ipintzera biaftuta; eta mingafiago dana, neurez an jostundegian ditugun egufezko beste «maniquí» ayek baño geyago aintzat aftzen ez nautela, esango zenduke gogaikafia dan ala ez nere bizikera.

—¿Zertako utzi zenduan, ofela ibili-beafik gabe, lantegiyan josiya irabazten zendun alogera? ¿Zergatik ez dezu nai, ni bezela, emen etxian ogiya irabazten alegindu?

Eta berez langilea zan Jone, bere burua alpeftzat azaldu-beafak ematen zion naigabeaz minduta, gogoaz makuftu zion, eta aitoftzen lotsatzen zan maitasun gaiztoa beregandik jaurti-eziñik egiten zuan indafez biotza ufatuta, malkotan leftu zan, bere aizparen ondoan negafez eseriaz.

—Nik ez dakit..... ez dakit..... ez dakit zer nai defan; baña ez nazazu alpeftzat euki, Elixabete.

—Beñere alpefa etzera izan, baña nik ez dakit aspaldi ontan zer darabilzun. Len ain gentzatsu ta pozik zeramagun bizikeraz gogaitu zerala derizkiot; zure arpegitik lengo alaitasunak iges-egin du; gogaitua ageri zera; nik zer dan igefi ezin defan zerbaitek zure gogoaz nekatzen du. ¿Zer dezu?

Eta maitasun eta efuki aundiz Elixabete'k bere aizpa gaxua besafkatu zuan; onen mingañak aitoftu nai etzuan gaitza, bere maitasuna azalduaz erazan nai ba-zion bezela.

—Nik al-dakit? Dakidana da aberatsen aunditasuna nere txirotasunaren ain urbil, oni destain-egiñaz nabaitzen defan ontan, neure biotza nere gogoaren aufka jeikitzen dala; eta ain goitik begitzen didaten andera afo oyek zapaltzeafen, edozer, edozer izatera jafiko nintzakela.

—¡Ene Jonetxo!—Eta amildegi baten erori-beafean zegolarik indafez eltziko ba'zion bezela, orduan eta estuago ta ikaratuago eltzen ta besafkatzen zuan aizpa onak beste efukafia.

—¿Zergatik, txindi pizka baten ordeaz andera andiki ayen afokeria ernaituaz, zure nagusiaren sakela betetzen bizi-beafian, senaf zindo bat maitatuaz, Jainkoa'rentzat sendi bat eraltzera jafi nai ez dezu, onela zure gogoaz donokirako irabazkiñez aberastuteko.

Neskatxa gaxuari, aizparen maitasunak biotz-bigunduta, berak igafi-gabe, gogoaz zabalda zitzayon, eta naiz ta lengo ezpayez, bafuan zeukan guzia igestu zitzayon mingañera.

—Nayago nuke, Elixabete, zuk bezin eramakof afkitzen ba'neki txiro izatearen nerea.

—¿Zergatik Jainkoa'ri eskatu ez ofetarako laguntasuna?

—¡Ene Elixabete! Laistef ezkonduko zera, bere lanaren ordeaz irabaziko duan aloger gutxi bat besterik eskeñiko ez dizun mutil ekadontsu batekin; naikoa dezu gizonezko ori on-ona dala jakitea eta maite zaituala ikustea zeure biotza berari oso-

—Zuk, Jone, bai-dezu nik bezin senafgai zintzoa. ¿Zergatik ziñez maite ez dezuz?

—¡O! Ander'ak ez du, ez du nere biotza betetzen, ez du nere gogoa asetzen.

Eta nai etzuan zerbaitek iften beaf ba-zion bezela, bat-baten neskatxa gaxua ixildu zan, eta, naigabez, bere eskuekin argegia estaldu zuan. Maitasun-galdu baten sari, bizikera lasai bat eskeintzen zion gizaseme aberats zabafaren oroyak betiko bere gogoa guda bizitu zion.

Elixabete'k, besterik galdetzeko astia izan zuan baño len, norbaitek atea jo zuan. Eta au irikitsera joanik, Jone ere bere oldozkun lafietatik une berean azkatu zan, nor zetofen adi-adi jafiaz.

Laistef zan bere aizpa neska-kostof ile-ori, begi-uridin zoragafi bat eskutik zekafela. Etxepean bizi zan beren adizkide baten alabaixoa zan.

—Nere burestuna egin dezuz?—galdetu zion umetxoak Jone'ri, alai, baña joranez.

—Bai, Mirentxo, egin dizut. Orain bai-dezu zure lenengo Jaunaftzarako burestuna.

Eta aizpa biyak umetxoaren pozaz atseginduaz, oni burestuna jantzirik, izketa jostariaz alaitsu zeuden.

Bere soñeko maistuak afen, umea zoragafi zegon, burestunak gotzon-itxura zemayola, Jone'ren afean zut-zutik eta onen pozkariai laztanez erantzuten; neskatxa efukigafiaren gogoraño saftu zan ume tolesgabearen bilura biguña. Oni begira, iruimenak azaldu zion lenengo Jaunaftzea zuan egunean bere amak izango zuan zorion aratzaren gozotasuna; eta joran garbi baten indafez bere gogoa igitu zan.

Bat-batean jeikirik, urbildu zan bastef baten zegon maitxo batera; eta aizpa eta umetxoa utzirik, laistefka idazten asi zan.

—¿Zer dagizu?—galde zion Elixabete'k afituta.

—Ander'i idaztera noa. Bere emazte izan nai det. Orain ez nau, ez nau bilduftzen txiro izatearen nekeak. Jainkoa'ren laguntasunak neke guziak arinduko ditu, eta berak demaizkidan atsegin bidezkoak besterik ez ditut nai.

Eta besafkada pozkafi bat emanaz, aizpak joranez galde zion:

—¿Baña zerk aftu-arazi dizu erabaki ori?

—Mirentxo'ren burestunak.

Eta beregandik iges-egin zuan gogo-gentza, Jone'k une berean befiro iritxi zuan.

TENE.

